



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 20a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, aurrezki kutxen politikei buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburuaren mahaia” sor dezan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe arloko transferentzien prozesua abian jar dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 351/1992 Foru Dekretua alda dezan, osasun eskualde oinarritzako etengabeko laguntzaz hornitzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen politikoa, Kataluniako Generalitateko kontseilari Antoni Castells jaunak eginiko adierazpenak gaitzesteko eta errefusatzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Kutxak Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsalak irekitzeak zerga arloan dituen ondorioei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).

—Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orriari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).

—Galdera, Lizarrako Udalak izen ofiziala aldatzeko egin duen eskaerari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Hezkuntza bereziko Lantxotegi eta Ilundain Fundazioa ikastetxeen harreman esparruari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (10. or.).

—Galdera, “Bidezainak” izeneko lursailak Itoiz-Canal de Navarra fundazioari lagatzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (11. or.).

- Galdera, Alvaro de Marichalar jaunari Japoniara joateko emanen dion dirulaguntzari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (11. or.).
- Galdera, Reina Sofia Ospitaleko anbulantzien zerbitzuari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).
- Galdera, helduen hezkuntzako zentroetako irakasleen plantillari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Otik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzeko laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (13. or.).
- Galdera, zabor mota bakoitzaren tratamendu berariazkoari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoei eta horri buruzko araudia betetzeari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (15. or.).
- Galdera, Sanyok Tuteran duen lantegia ixteari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (16. or.).
- Galdera, alergia edo asma arazoak dituzten pertsonen buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko pabilioiak garbitzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, helduen oinarritzko hezkuntza arautzen duen foru legearen aplikazioari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2006ko ekitaldirako (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko otsailaren 22ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2005eko abenduaren 20ko

132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, aurrezki kutxen politikai buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak aurrezki kutxen politikai buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuak lehendakariari egiten dion jabeldura, aurrezki kutxen politikai buruzkoa.

Zioak:

Nafarroak aurrezki kutxen arloko eskumenak dauzka. Eskumen horietaz baliatuz Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen, bere garaian, 1987an, Nafarroako aurrezki kutxetako zuzendaritza organoak demokratizatzeke Foru Legea; foru lege hori, aurrerago, kasuko foru dekretuaz garatu zen.

Hala eta guztiz ere, arau hori ez betetzeaz gainera, Nafarroako Gobernuak bere aldetik hartu zuen Nafarroako Kutxako estatutuak aldatzeko erabakia, Nafarroako Estatutuko aurreko estatutu-

ei buruz hitzartutako interpretazio historizista eta demokraziaren aurkako bat eginez.

Nafarroako Gobernuak foru lege hori nabarmen urratzeaz gainera, orain bere aldetik hautsi du Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio kutxen artean zegoen hitzarmen inplizitua, eta horrek, berez, konfederazio horren haustura eta deuseztatzea dakar.

Zerumugan zalantza handiak daude Nafarroako Aurrezki Kutxaren lehiakortasunarekin, kontuan hartuz BBK, Kutxa eta Vital Kutxa Nafarroan ezar daitezkeela ekimen horri erantzun korrelatiboa emanez. Hori onuragarria izanen da kontsumitzaileentzat, baina krisia ekarriko dio Nafarroako Aurrezki Kutxaren emaitzen kontuari.

Horrenbestez, nabarmendu daiteke Nafarroako Gobernuak ez duela inongo politikarik aurrezki kutxen inguruan, eta, bitartean, fusioen bigarren belaunaldiaren gaia antzematen hasiak gara. Nafarroako kutxek beranduegi egin zuten beren fusioa, eta xurgatzearen bide heterodoxoa erabiliz; epe laburrean eta ertainean, ordea, Nafarroako Aurrezki Kutxak fusioen bigarren belaunaldiari egin beharko dio aurre, lehiakortasunak eskatzen duen mailaren betekizunen ondorioz. Nafarroako Gobernuak etorkizuneko gai politiko horri arreta egin ez eta, gainera, sektorearen etorkizunaren eta bideragarritasunaren aurka jokatzen ari da.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburuaren mahaia” sor dezan.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburuaren mahaia” sor dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Parlamentu talde hau kezkatuta dago erakundeek liburuaren industriari egun ematen dioten laguntzarekin eta obretarako dirulaguntzengatik eta haien argitalpenengatik Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuari egin zaizkion arbitrariotasun kritikekin, eta argi ikusten du liburu-saltzaileen gremioa sustatu beharrekoa dela eta irakurketa sustatzea garrantzitsua dela, bai eta gure autoreei eta gure liburuaren industriari laguntzea ere. Horiek horrela, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beranduenez sei hileko epean, “Nafarroako Liburuaren Mahaia” osa dezan; bertan, idazleak, editoreak, liburu-saltzaileak, liburu-zainak eta liburuaren, hizkuntzaren, irakurketaren, kultur aniztasunaren eta sektorearen profesionaltasunaren aldeko erakundeak bilduko dira.

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe arloko transferentzien prozesua abian jar dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe arloko transferentzien prozesua abian jar dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Foru Hobetzearen 58. a) artikuluen arabera, Nafarroari dagokio espetheen arloko eskumena. Honezkerok badago autonomia erkidego bat, Katalunia, transferentzia hori bere gain hartu duena.

Iruñean espetxe berria eraikitzeko aurreikuspena dela eta, beharrezkoa da plangintza bat egitea espetxe batek behar dituen zerbitzuen arabera:

hezkuntza, osasuna, laguntza, gizarte ongizatea, birgizarteratzea eta abar.

Logikoa da zerbitzu horiek emateko ardua izanen duen administrazioa bera izatea espetxearen eraikuntzaren plangintzaz arduratu eta hura gauzatuko duena. Sinbolikoki esan liteke Iruñeko espetxeak trinketa, igerilekua eta pilotalekua eduki behar dituela, liburutegia, eskola eta tailerra edukitzeaz gainera.

Estatu osoan zentro berriak egiteko plangintzak, zeinaren baitan sartzen baita Iruñean beste zentro bat eraikitzeo aurreikuspena, aukera ematen du aipatu transferentzia sustatzeko.

Iruñeko egungo espetxearen ezin eutsizko egoerak agerian utzi ditu zentro berri baten beharra eta hura egiteko eta espetxe arloko transferentzia eskuratzeko premia larria.

Egungo espetxearen orubearen gainbalioari buruzko eztabaida zuzena ez izateaz gainera ez du inongo errespeturik erakusten askatasunik gabe dauden pertsonetikiko eta haien senideetikiko,

espetxe arloko transferentzia berekiak geureganatzeko daukagun betebeharraren aurrean.

Ez da, beraz, degradatu behar egoera kritikoan dauden ehunka pertsonarengan, alegia espetxeetan daudenengan, eragina duen gai bati buruzko eztabaida, dauden lekuan egoteagatik erabilera publikokoak izan beharko liratekeen orube batzuek izan ditzaketen gainbalioak bezalako gaiak erabiliz.

Azkenik, dispertsioa bezalako zigor osagarriak, Zigor Kodetik kanpo daudenak, gaudituz espetxe-etako humanizazioan laguntzea da gatazka gauditzeak eta gizartearen baketzeak ekarriko luketen sakontze demokratikoari Nafarroak egin diezaioketen ekarpenetako bat.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea espetxe arloko transferentzia lortzeko prozesuari hasiera eman eta hura abian jar dezan.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 351/1992 Foru Dekretua alda dezan, osasun eskualde oinarritzkoak etengabeko laguntzaz hornitzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 351/1992 Foru Dekretua alda dezan, osasun eskualde oinarritzkoak etengabeko laguntzaz hornitzeko."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

351/1992 Foru Dekretuak hiri barruko, hiri inguruko eta landa ingurune oinarritzko osasun-laguntzaren arloko laguntza jarraitua erregulatzen du. Hori guztia dela eta, laguntza jarraitua arautzen da guardia lokalizatuen eta bertan egoteko guardien bitartez.

Ezaugarri geografiko berezien arabera, laguntza jarraituko guneak definitzen dira. Bestalde, laguntza jarraituaren arautzea zentroetako profesionalen kopuruaren arabera ezartzen da.

Argi dago foru dekretu hori argitaratu zenetik bilakaera bat izan dela populazioaren hazkuntzan eta osasun beharretan, eta horren beharrezko egiten duela beste planteamendu bat egitea, foru dekretua atzeraturik geratu baita.

Gaur egun larrialdiko laguntza egokia ez duten osasun eskualde oinarrizkoak badaude, hau da, osasun etxeetan profesionalen presentzia ez dutenak, nahiz eta osasun laguntzaren eskaria handia izan.

Egokiagoa dirudi osasun-laguntza oinarrizkoaren arloko laguntza jarraitua beharren eta osasun eskariaren arabera arautzea.

Horren adibide esanguratsua eta ezaguna da Artaxoa-Larraga osasun eskualde oinarrizkoan gertatzen dena; izan ere, bertako udalek eta profesionalak behin eta berriz eskatu dute 15:00etatik 22:00etara bertan egoteko guardiak ezar daitezela.

Artaxoako barrutiko osasun profesionalak jasotzen dituzten deiei buruz erregistraturiko datuak beste osasun eskualde batzuetako laguntza lokali-

zako guneetako gainetik daude, eta bertan egoteko guardiak jar daitezela justifikatzen dute.

Osasun etxeetan larrialdiko osasun arreta eta laguntza egokia emateak bidea ematen du eskuragarri dauden baliabideak modu egokian erabiltzeko, kalitatezko eta berehalako laguntza emateko eta ospitaleetako larrialdi zerbitzuek lan gehiegi izan dezaten saihesteko; izan ere, larrialdi zerbitzuetako egoera, batzuetan, larrialdiko oinarrizko osasun laguntzaren funtzionamendu txarraren ondorioa da.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du 351/1992 Foru Dekretua alda dezan, laguntza jarraituko guneak ezarri beharra duten osasun eskualde oinarrizkoetan, osasun eskariaren eta beharren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Artaxoa-Larraga osasun eskualde oinarrizkoan berehala ezar ditzan bertan egoteko guardiak.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen politikoa, Kataluniako Generalitateko kontseilari Antoni Castells jaunak eginiko adierazpenak gaitzesteko eta errefusatzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak gaitzesteko eta errefusatzeko Kataluniako Generalitateko kon-

tseilari Antoni Castells jaunak Nafarroako hitzarmenari eta Euskal Autonomia Erkidegoko kontzertuari buruz egin dituen adierazpenak.”

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Kutxak Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsalak irekitzeak zerga arloan dituen ondorioei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Kutxak Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsalak irekitzeak zerga arloan dituen ondorioei buruz foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari

Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko errege-lamenduaren babesean, honako ahozko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Aurrezki Kutxak erabaki du 50 sukurtsal zabaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru lurraldeetan. Zein da iragarri den erabaki horrek gainerako aurrezki kutxetan eta Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioan bertan sor dezakeen eragin fiskala, aurreikusitakoaren arabera?

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orriari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orriari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak

eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilari Luis Campoy Zueco jaunak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean.

Zergatik dago Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren web orria soilik gaztelaniaz, legegintzaldia hasi zenetik bi urte luze iragan direnean?

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Lizarrako Udalak izen ofiziala aldatzeko egin duen eskaerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Lizarrako Udalak izen ofiziala aldatzeko egin duen eskaerari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko

erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakari Miguel Sanz Sesma jaunak Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Lizarrako Udalak Nafarroako Gobernuari izen ofiziala aldatzeko egin zion eskaria zergatik ez zen onartu?

Uste ote du lehendakariak Lizarra izena ez dela gaztelaniazkoaz bestelakoa edo ez dela Estella terminoa euskaraz esateko modu jatorrizkoa eta tradizionala, Euskararen Legeko Nafarroako toponimoei buruzko artikuluetan esaten den bezala?

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Hezkuntza bereziko Lantxotegi eta Ilundain Fundazioa ikastetxeen harreman esparruari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Hezkuntza bereziko Lantxotegi eta Ilundain Fundazioa ikastetxeen harreman esparruari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregulamentuan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Otsailaren 7an, Legebiltzarreko Gizarte Ongizateko Batzordeak bisita egin zuen foru erkidegoko bi ikastetxetara, Lantxotegira eta Ilundain Fundaziora.

Zentro horietako bakoitzak bere berezitasuna du gizarte bazterkeriako egoeran dauden adingabeen eta gazteen gizarte eta hezkuntza arretarako eta lan arretarako.

Bi zentroetako langileek, lanean eman dituzten urte hauetan guztietan kontrastaturiko profesionaltasunaz gainera, administrazio publikoen erantzuna behar dute, bi zentro hauetan egiten den lanaren jarraitasuna bermatzeko behar diren baliabide eta langileekin.

Nafarroako Gobernuak, dagokien departamentuen bitartez (Gizarte Ongizatea, Hezkuntza, Industria), bere gain hartu duen konpromisoa lehenbiziko unean handia izan da, baina ez da nahikoa egungo inguruabarretan; hori dela eta, ezinbestekoa da ahalegin ekonomikoak handitzea, lana borondatez, gorputz eta arimaz eta militantzi-az egiteaz gainera, arduradun batek esaten zenez, segurtasunez ere egin dadin, hain zuzen ere bi zentroetako arduradunek helarazi zizkiguten presako asmoak bermatzeko eta haiei erantzuna ematea.

Ilundain Fundazioak Nafarroako Gobernuak pre-
miatzen du sei hileko epean Nafarroako Gobernu-
ko departamentuekin dauzkan harremanen espa-
rrua berrikus dezan, hitzarmen bakarra deitzen
dena lortu arte; hartan, ondokoak sartuko dira:

– Curriculum egokituko unitateko irakaslea/ikaslea egungo ratioa gutxitzea eta curriculum egokituko hirugarren unitate berezi eta murriztua zabaltzea.

– Lanbide-hastapen egokituko programak zurgintza eta lorezaintza arloko lanbide-hastapen berezi gisa birkalifikatzea, postuak zabaltzea eta iraupena urtebetetik bi urtera luzatzea. Hezkuntza Departamentuak bere gain hartu behar du lanbide-hastapeneko programa horien gastuaren % 100, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren egungo ekarpenari eutsi behar dio, teknika-errentzako laguntza gisa.

– Igeltserotzako gizarte hastapen egokituko bi programa berri (I eta II) sartzea, laneratze azkarra dakartelako gizarte eta hezkuntza neurriak betetzen ari diren adingabeentzat.

– Giza baliabideak egokitzea, laguntzako talde tekniko espezializatua zabalduz eta bertan psikiatra bat sartuz.

– Langile irakasleen eta irakasle ez diren langileen lansariak irakaskuntza pribatu itunduko ikastetxeetako gainerako langileen lansariekin parekatzea.

Lantxotegiren kasuan, hauxe da egiten duten eskaria:

– Lanaldi osoko kontratua egitea gaur egun lanaldi erdian ari diren pertsonetako bati.

– Azpiegiturak hobetzeko eta Entrevías tailergela berritzeko zuzkidura ekonomikoa.

– Naturaren eta ingurumenaren ikasgelak bezalako proiektu berriak.

– Monitoreen eta ikastetxeko gainerako langileen lansari baldintzak hobetzea.

Parlamentu-talde honek interesarekin begiratzeko dio garatzen ari diren bi hezkuntza esperientzia berri hauetan egiten den lanari.

Parlamentuko Gizarte Ongizateko Batzordean azaldutako kezkekin eta aldarrikapenekin bat gatzela, eta ulertuz konponbideak integrala izan

behar duela eta gobernuko departamentu guztietan eragina izan behar duela, parlamentu-talde honek gobernuari galdetzen dio ea bi zentro horietako arduradunek helarazi zizkiguten eskariei,

arestian aipatuei, baiezkorik emanen ote zaien eskatzen diren epeari eta baliabideei dagokienez.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, “Bidezainak” izeneko lursailak Itoiz-Canal de Navarra fundazioari lagatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea “Bidezainak” izeneko lursailak Itoiz-Canal de Navarra fundazioari lagatzeari buruz foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Parlamentari honek jakin du Nafarroako Gobernuak Agoizko “kamineroak” izeneko lursailak laga dizkiola Itoiz-Canal de Navarra Fundazioari.

Kamineroen parkeak izenaz ezagutzen direnak foru lurraldeko leku ezberdinak daude, eta askotan hondaturik eta jendez husturik daude. Udalek eskatzen dute haiek kudeatu eta herritarren zerbitzuan jarri ahal izatea. Hala eta guztiz ere, eskari horiei Nafarroako Gobernuak ez die baiezkorik eman.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zein salbuespen dela-eta laga zaizkio Agoizko lursailak Itoiz-Canal de Navarra Fundazioari.

– Ba al du asmorik edo aurreikuspenik lursail guztiak dagozkien udalei lagatzeko?

Iruñean, 2006ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Alvaro de Marichalar jaunari Japoniara joateko emanen dion dirulaguntzari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, Alvaro de Marichalar jaunari Japoniara joateko emanen dion dirulaguntzari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Miren Egaña Descargak, Aralar parlamentu-taldeko kideak, Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz, ondoko galderak egin ditu Kultura eta Turismo kontseilariak erantzun diezazkion:

1.- Egia al da Nafarroako Gobernuak finantzatu edo diruz lagundu behar duela Álvaro de Marichalar jaunak aurtien Japoniara edo Japonian zehar eginen duen bidaia?

2.- Baiezkoan, bidaia horren proiektuaren kopia nahi dugu.

3.- Zein irizpideren arabera erabaki da dirulaguntza edo finantzaketa hori?

4.- 2006ko gastuen aurrekontuko zein kontusailaren kargura exekutatu da dirulaguntza edo finantzaketa horrek ekarriko duen gastua?

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, Reina Sofía Ospitaleko anbulantzien zerbitzuari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Reina Sofía Ospitaleko anbulantzien zerbitzuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaien.

Azken egunetan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean Nafarroako eskualdetako anbulantzien zerbitzua adjudikatzeko lizitazioa argitaratu da; planteatzen diren proposamenetan funtsezko aldeak daudenez, departamentuak honako galderei erantzutea nahi nuke:

Proposamen berrian nola geratzen da Reina Sofía Ospitaleko anbulantzia zerbitzua, goizeko 8etan hasi eta hurrengo eguneko goizeko 8ak arte irauten duena?

Zerbitzuak jarraitzen al du izaten gaueko ospitale-anbulantzia, ospitaleen arteko bidaiak egiteko?

Bermatuta al dago gaueko 10etatik aurrera larrialdietako senda-baimenak hartu dituztenak garraiatzeko zerbitzua, edo gaixo horiek ospitalean jarraitu behar dute biharamunera arte?

Iruñean, 2006ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, helduen hezkuntzako zentroetako irakasleen plantillari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok jaunak egindako galdera, helduen hezkuntzako zentroetako irakasleen plantillari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentari honek jakin du Hezkuntza Departamentuak asmoa omen duela helduen irakaskun-

tzan ari diren irakasleen plantilla gutxitzeko, nahiz eta eskari handia egon eta egun ere jendea matrikulatu gabe geratu, dauden baliabideak nahikoak ez direlako.

Hori guztia dela eta, Hezkuntza kontseilariak honako galdera honi erantzun diezaion nahi dugu:

Zein da gaur egun helduen hezkuntzako ikastegien irakasleen plantilla (adierazi zenbat lanpostu dauden, zenbat dauden bete gabe eta, kasu bada, zenbat aldi baterako irakasle dauden)?

Dauden aurreikuspenen arabera, etorkizunean zenbat handituko edo gutxituko da plantilla? Zer aurreikuspen daude lanpostuak betetzeko?

Zein izan da ikasleen bilakaera, ikastegien arabera, azken bost urte hauetan? Zenbat eskabide geratu dira baiezkorik gabe leku aski ez dagoelako?

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Bellosok

Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzeko laguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok jaunak egindako galdera, 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzeko laguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Patxi Telletxea Ezkurra parlamentariak 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzeko eskariei buruz eginiko galderari erantzunez, Hezkuntza kontseilariak 2004ko maiatzaren 12an (2004ko abenduaren 16ko 107. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) informazioa eman zuen Hezkuntza Departamentuak eginiko dirulaguntzen plangintzari buruz eta dirulaguntza horiek emateko epeei buruz (2004tik 2010era).

Informazio hori gorabehera, badirudi laguntzak hartu behar zituzten udaletako batzuek jakin dutela geroan lehentasunak berrikusi behar zirela, eta, horrenbestez, ez direla iragarritako dirulaguntzak jasotzen ari.

Hori guztia dela eta, Hezkuntza kontseilariak honako galdera honi erantzun diezaion nahi dugu:

– Zein plangintza aplikatzen ari da Hezkuntza Departamentua laguntza horietarako?

- Zein dira laguntzak lehenesteko irizpideak?
- Zein udalek jaso dute laguntzarik 2004an eta 2005ean? Zenbatekoak adierazi.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, zabor mota bakoitzaren tratamendu berariazkoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, zabor mota bakoitzaren tratamendu berariazkoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluen eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

2006ko otsailaren 6an, Greenpeacek “Zaborren egoera Espainiako Estatuan” txostena aurkeztu zuen. Bertan, Ingurumen Ministerioaren datu ofizial berrienak aztertzen ditu.

Autonomia erkidegoen arabera azterketak dio Nafarroak % 16,93 baizik ez duela biltzen; hala

eta guztiz ere, ez dakigu zabor horretatik zenbat berreskuratzen den modu efektiboan.

Azterlan horretatik ondorioztatzen da Espainiako Estatuko hondakinak % 40 hazi zirela 1996tik 2003ra bitartean, eta, biztanle eta egun bakoitzeko, 1,06 kilogramotatik 1,38 kilogramotara igo dela, duela hamar urte baino % 29,35 gehiago.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zer datu ditu Nafarroako Gobernuak gure erkidegoan gaikako zabor-bilketaren bidez jasotzen diren zabor mota bakoitzari ematen zaion tratamenduari buruz?

– Zein da gaikako zabor-bilketaren eta zaborren gaikako tratamenduaren artean dagoen erlazioa, hau da, zein da ezaugarrien eta osaketaren arabera berariaz tratatzen den zaborren ehuneko?

– Zein neurri proposatzen ditu Nafarroako Gobernuak berreskuratutako materialen kopurua handitzeko?

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Atzerapen handiarekin jaso dut “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruz egin nituen galderen idatzizko erantzuna. Galderak azaroaren 16an erregistratu ziren Nafarroako Parlamentuan eta hilabete bereko 28an argitaratu ziren NPAOn.

“Zer entitateri eman zaio lan hori egiteko enkargua?” galderari ez zaio erantzunik eman. Hori dela eta, galdera berriz egin beharrean nago, eta hurrengoak erantsi nahi ditut:

- Portugalgo enpresa bati adjudikatu zaizkio erakusketa hau egiteko lanak?
- Zein da enpresa hori?
- Nola egin da adjudikazioa?
- Zenbateko lansariak ordaindu behar zaizkio enpresa honi “Erresuma baten Aroa” erakusketan egin duten lanaren truke?

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoei eta horri buruzko araudia betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoei eta horri buruzko araudia betetzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan.

Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoak egiteari eta haiei buruzko arauak betetzeari dagokienez, hona galderak:

1.- Nafarroako Gobernuak nolabaiteko jarraipena egiten al du Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoen arauen betetzeari buruz?

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoei buruzko arauetan ez-beteterik izan ote den?

3.- Zenbat zehapen espediente ireki ditu Nafarroako Gobernuak azken hiru urte hauetan? Zein udalen kontra ireki dira?

4.- Zenbat espediente ebatzi dira zehapen bat jarriz eta zenbatekoa izan da zehapena?

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren

Galdera, Sanyok Tuteran duen lantegia ixteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Sanyok Tuteran duen lantegia ixteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Sanyo enpresaren plantilla osatzen duten 177 langileak agertokirik okerrenean daude. Enpresak iragarria du planta berehala itxiko dutela behin betiko eta enplegua suntsitzeko espedientea tramitatuko duela.

Erriberako enpresa garrantzitsu bat da, enplegu bolumen nabarmen handia duena. Itxiera honetaz gainera, beste batzuk ere gertatu berri

dira eskualde berean. Horrenbestez, administrazioaren erantzun eraginkorra eskatzen duen egoera bat sortzen ari da, industria jarduerari eta enpleguari etorkizunean eustea bermatuko bada.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Zein kudeaketa eta jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak (departamentuaren nahiz beste edozein tresna publikoren bitartez) Tuterako Sanyo itxi dadin saihesteko eta jarduerari eta enpleguari eusteko?

– Konpromisorik hartuko al du Nafarroako Gobernuak plantillari lan irtenbide bat bilatzeko? Baiezkoan, zein jarduketa eta neurri jarriko dira abian eta zein epetan?

– Bultzatuko al du Nafarroako Gobernuak Erriberan enpresa eta industria ekimen berriak abian jartzea? Baiezkoan, zein jarduketa garatu ditu edo garatu nahi ditu?

– Nafarroako Gobernua oraindik ere pentsatzen al du Iberdrolan 173 milioi euro geldirik edukitzeak herritarren arazoei konponbidea emateko balio duela?

Iruñean, 2006ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, alergia edo asma arazoak dituzten pertsonen buruzkoa.

FORU PARLAMENTARIANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, alergia edo asma arazoak dituzten pertsonen buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Une hauetan, pertsona ugari dago Conde Oliveto anbulatoriora joan behar izaten duena, Alergologia Zerbitzura, hasierako txertoaren dosia hartzera; txertoaren gainerako dosiak beren osasun etxeetan hartzen dituzte.

Honako galderari erantzutea nahi dugu:

– Iruñetik kanpoko zenbat pertsona daude alergia edo asma arazoren bat dutenak eta Iruñera etorri behar izaten direnak txertoa hartzera?

– Pentsatu al du Osasun Departamentuak alergien aurkako txertoen zerbitzua Nafarroako eskualde ezberdinetako osasun etxeetara eramatea?

– Zerbitzua osasun etxeetara eramaten ez bada, zer dela-eta jokabide hori?

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroako Ospitaleko pabilioiak garbitzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARIANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Nafarroako Ospitaleko pabilioiak garbitzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran erantzun diezaioten.

Une hauetan, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak erabaki du Nafarroako Ospitaleko E eta G pabilioietako garbiketa sistema pribatizatzea. Uste izatekoa da Onkologia Zerbitzuan sortzen diren espazio berrietan bide beretik joko dela.

Une honetara arte, ez dugu jakin Nafarroako Ospitalean inongo osasun sekzio edo eremu itxi denik higiene arazoengatik. Bideko Ama Birjina Ospitalean eginiko inkesta baten emaitzetan ikus daiteke gaixoak ez daudela oso pozik ospitale horretako garbiketa zerbitzuarekin.

Pribatizatzearen interes bakarra izanen da, gure irudikoz, merkeagoa izanen dela, zerbitzu ordu gehiago izanen direlako eta langile gutxiago arituko direlako bertan.

Galdera hauei erantzutea nahi genuke:

– Orain arte garbiketa zerbitzuak pribatizatu direnean, zuzen funtzionatu al dute, zerbitzuko kalitatean aipatzeko moduko gorabeherarik gabe?

– Zergatik egin dizkie administrazioak behin-behineko kontratuak 53 pertsonari, 12 urte eta gehiago ere eman badituzte bete gabeko lanpostuak eta zerbitzuaren beharretarako lanpostuak betetzen?

– Normala iruditzen al zaizu?

– Osasun Departamentuak langileen subrogazioa eskatu behar al du baldintzen orrietan, zerbitzu hori adjudikatzeko garaian?

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, helduen oinarrizko hezkuntza arautzen duen foru legearen aplikazioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, helduen oinarrizko hezkuntza arautzen duen foru legearen aplikazioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Helduen oinarrizko hezkuntzari buruzko ekainaren 21eko 19/2002 Foru Legeak, azken xedapenetako lehenean, esku ematen die Nafarroako

Gobernuari eta gaian eskumena daukaten kontseilariari foru lege hori garatzeko behar diren erregelamendu-arauak eman ditzaten. Hala eta guztiz ere, foru lege hori argitaratu zenetik iragan den denboran, ez da inongo araurik eman hura garatzeko.

Foru lege horren 10. artikulua ezarri zuen Nafarroako Gobernuak, Pertsona Helduen Hezkuntzarako Departamentuarterako Batzordeak proposatuta, helduentzako ikastetxe publikoen sarea-ren plangintza onetsiko duela eta ikastetxe horien antolaketa, funtzionamendua, koordinazioa eta ebaluazioa arautuko dituela.

Hori dela eta, nahi dugu Hezkuntza kontseilariak informazioa ematea bere departamentuan foru legea erregelamenduz garatzeko eta xedapenak aplikatzeko dauden aurreikuspenei buruz eta gai honetan indarra duten plangintza xedapenei buruz.

Iruñean, 2006ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2006ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifa berriak oneste. Hauexek izanen dira 2006ko ekitaldian:

- Urteko harpidetza: 43,95 euro

• Banakako aleak:

- Aldizkari Ofiziala 1,15 euro
- Bilkura Egunkaria 1,30 euro

2.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	